

Errenteria-Oreretako Udalarri
Mikelazulo Elkarteak.
“Harresirik Gabeko Lurraldeak” egitasmoa.

Jaun-andreok: Mikelazulo Elkarteak “Harresirik Gabeko Lurraldeak” egitasmoa aurrera eramaten ari da, herriko hainbat norbanako eta eragilek ere iada bere egin dutelarik. Idazki honen bidez aurkeztu nahi dizuegu egitasmoa eta proposamen pare bat zuen kontsideraziotan jarri.

SARRERA:

Mikelazulo Kultur Elkarteak sortu zenetik saiatu da zubiak eraikitzen, munduko beste kulturak ezagutzen, gure artean bizi diren etorkinekin harremanak egiten, egoera injustuak salatzen...

2013ko urrian Lampedusatik gertu barku bat ondoratu zen, gutxi batzuk arrantzale barku bati esker salbatu ziren eta 260tik gora, gerratik ihes zetozten pertsonak, hondoratu eta hil egin ziren. Bi urte geroago, 2015ko azaroan, "Lampedusako mosaikoa" artelanaren inaugurazioa egin genuen Oreretako zumardian, mediterraneoan hildako migranteen oroimenez. Hau izan zen gure proiektuaren abiapuntua.

I.-EGITASMOA: HARRESIRIK GABEKO LURRALDEAK.

Egitasmoaren helburu nagusia, herria SENSIBILIZATZEA da. Hau da, globalizazioaren garaiko migrazioaren fenomeno berriaren aurrean elkartasunaren jarrera sustatu, gertatzen denaren ulermena landu, eta ekintzetan gauzatu-gertuan jadanik dugun etorkinekiko harremanan justuak eta abegikorrak sustatu, eta instituzioek daramaten politiken aurrean irizpide propio eta kritikoak landuz. Migrazioaren fenomenoak azalpenak behar eta eskatzen ditu. Fenomeno hori ezin da esplikatu Afrikako, Amerikako, Ekialde Hurbileko eta urruneko lurren espekulaziorik gabe, sortzen diren gerrarik gabe eta aldaketa klimatikoaren ondorioak kontutan hartu gabe. Guzti hori dago migrazio fenomenoaren oinarrian. Zergatik Europak gotortzen ditu bere mugak Melillan, Mediterraneoan, Europako ekialdeko estatuetan, Calaisen? Zergatik paperik gabekoentzat duen erantzun bakarra da CIESak eraikitzea gero, komenentzien arabera, deportazioari ekiteko? Zergatik du islamofobiak European

horrenbesteko pisua? Nola egin aurre horri? Gauza guzti hauei buruz gogoeta, eztabaida, kriterio propioak lantzea nahi dugu.

Aurrera eramango dugun sentsibilizazio-kanpainaren edukia gure “manifestu txikian” laburbiltzen dugu.

Manifestu txikia

Lampedusa uhartea sinbolo bat da, Europako lotsaizunaren sinboloa; baina aldi berean, baita bizitza duinaren aldeko ahaleginen sinboloa ere. Melillako harresia, Mediterraneoko pateren infernua, Europako mugetako milaka errefuxiatuak, Calais aldeko militarizazioa, CIES-ak, Frontexa, arrazakeria... Lampedusa Mediterraneo erdian dagoen uhartea da eta aipatu egoeraren sinboloa.

Milioika pertsonak bezala, guk ere esaten dugu: *hau onartezina da! Duintasuna zapaltzen du!* Bizi ditugun migrazio masiboak eta migrazio horien egoerak: ihes egin beharra, bidaiaren arriskuak, Europako heldu lurretan altxatu diren harresiak... ez dira naturalak; eta ezagutzen ditugu horren erantzunkizuna dutenak. Afrikan eta Ekialdean gosea ereiten duten multinazionalak, NATO bezala gerrak antolatzen dituzten erakunde nahiz gobernuak eta batez ere Europako Komisioaren politikak.

Sumindura hori zuritzeko mezu faltsuak, kutsagarriak eta hipokritak hedatzen dira zinea, telebista, informatiboak, tertuliak, egunkariak, legeak, edota ikuskizunak erabiliz. Munduko boteretsuenek miseriara kondenatu dituzten arren ez dira ez herri eta ez herritar atzeratuak. Ez dira kultura eta hizkuntzarik gabeak, nahiz eta haien ahotsa isildua izaten den. Arrazakeriak eta islamofobiak erakusten duten nagusikeria eta harrokeria minbizia da.

Bizitzen ari garenaren aurrean suminduta gaude. Gure gain dauden gobernuen hipokresia jasan ezina da. Gure inkoherentziak ere astindu nahi ditugu: ez dugu ezikusiarena egin nahi, ez dugu gure erosotasuna zaindu nahi milioika etorkinen sufrimenduei bizkar emanez, ez dugu gure pribilegioak eskubideak direnik esango. Ez gara itsutuko *etorkinen arazoa* aipatuz, hemen dagoen arazoa ez direlako haiek, kapitala pilatzea ez besterik nahi dutenak baino. Ez dugu onartuko biktima dena errudun izatearen estigma ezartzea. Ez dugu onartuko zapalduen arteko konfrontazioa sortzea.

EUROPA HARRESIRIK GABE/EUROPA GERRARIK GABE/ MUNDUKO LANGILE HERRI DENAK ELKARREKIN

II.- KANPAINAREN GARAPENA.

Harresirik Gabeko Lurraldeak kanpainari hasiera eman genion apirilaren 18an egin genuen elkarretaratzearekin. Urte bete lehenago, 2015eko apirilaren 18an, 700 etorkin urazpiratuak eta hilak suertatu ziren Europatik (Lampedusatik) 100 bat kilometrotara. Elkarretaratze honetara Errenteria/Oreretako berrogeita hamar elkartetik gora batu ziren deialdia egiteko. (1)

Apirila-maitzean hainbat ekitaldi egin ditugu. Irrati saioak, aldizkaritan elkarrizketak, hitzaldiak, mezuarekin bat doazten kamisetak atera eta saltzen hasi gara, laguntza eskeini digute ipuin kontalariak, antzerki egileak, OarsoMusika Taldeak, Zaria koru-eskolak, Fatima Parrokiak, San Pedroko talde kulturalaren bidez emandako kontzertuak, Herriko Bandak eta Badut pailazo taldeak elkarrekin egindako emanaldian. Emanaldi guztietan azaltzen dugu egitasmoaren muina, eskertzen dugu laguntza. Esku tartean dugu Herriko Festetan parte hartzea, “Harresirik Gabeko Lurraldeak” egitasmoarekin haurrekin gozatzeko festa-jai berezia eginez. Abuzturako lantzen ari garen ekimenik ere baditugu.

Kanpainaren erdialdean, abuztuaren azken astean, Lampedusara goaz. Harremanetan gaude Lampedusako Askavusa talde solidarioarekin. Haiekin batera nahi dugu han bertan elkarrekin salatu Europako Lotsa eta gure elkartasuna adierazi. Gure funtzio nagusiena bidai honetan izango da geure motxilak kargatuak ekartzea (ikusitakoa, hitzegindakoa, grabatutakoa, elkarrizketak, informazioa zuzenean jaso...). Guzti hori bihurtu nahi dugu gero bideo, liburu, emanaldi artistiko, hitzaldi... Errenterian eta inguruan zabaltzeko. Hitz batez Lampedusara goaz ikerketa lan bat egitera: harresia sentitu, migrazioa ikusi, beldurrak dastatu, istorioak entzun...eta gure elkartasuna eta salaketa agerian jarri.

Denbora honetan hasi gara lotzen ere harremanak Melillako eta Calais-eko talde solidarioekin eta jadanik baditugu Europako Mugetan lanean ari den Intxaurrendoko Zapore elkarrekin.

Bidaia ondorengo hilabeteak. Lan handiena, gure ustez, bidaiaren bueltan izango dugu. Lampedusan ikusitakoa eta ikasitakoa arte disziplina ezberdinen bitartez eta hitzaldiekin gure herriko jendeari erakutsi. Gure asmoen artean dago Melillan, Calaisen, Lampedusan, Grecia-Macedoniako mugetan ari diren elkarte solidarioekin batzar moduko bat osatu eta sentsibilizazioari dimentsio orokorragoa eman. Aipatzen dugun elkarte solidarioen topaketa hau azaroan egiteko asmotan gaude.

PROPOSAMENAK:

Hauek dira Udalari egiten dizkiogun proposamenak.

- 1.- HARRESIRIK GABEKO LURRALDEAK egitasmoarekiko atxikimendu eta babesa.
- 2.- Melillan, Lampedusan, Calaisen eta Europako mugetan, hala nola Espainiako lurraldeetan dauden CIESetan ematen diren giza eskubideen urraketak salatzea.
- 3.- Aurreko puntuan aipatu gunetan ematen diren giza-eskubideen urraketan informazioa herritarren artean zabaltzeko konpromezua, bere esku dauden baliabide informatiboak erabiliz.
4. Harresirik Gabeko Lurraldeak egitasmoak antolatuko dituen Jardunaldietan, laguntza emateaz gain, modu aktiboan parte hartzea. Jardunaldietan hiru atal landuko ditugu:
 - a.- Mugako lurraldetako informazioa eta esperientzia solidarioak ezagutzea: Lampedusa, Melilla, Calais eta Indomenea.
 - b.-Oarsoaldeko elkarte eta dinamika solidarioen esperientziak ezagutzea.
 - c.- Oarsoaldeko udal-instituzioek emigranteen egoerari eta beren eskubideei buruzko analisiak, esperientzia, jarrerak eta implikazioak azaltzea.

“HARRESIRIK GABEKO LURRALDEAK” EGITASMOA